

MUSIKA

Visión talde kubatarra • Trintxerpeko alkateordetzako plazan, 00:00etan

Elkartasun kontzertuak Kubatik

OARSOALDEA, S.A. Eskualdeko Garapen Agentzia (Errenteria, Lezo, Oiarzun eta Pasaiaiko udalek osatzen duten enpresa) La Habanako probintziarekin osasun eta hezkuntza arloetan lankidetzak ekimen bat bultzatzen ari da.

Laguntzeko modu berriak antolatu nahian, uda honetan *elkartasun kontzertuak* deritzon programa garatzen ari dira, Visión musika talde kubatarrarekin. Ekainaren 25ean izan zen lehen kon-

zertua, eta taldea gutxienez irailaren amaiera arte izango da Euskal Herriko eta inguruko txoko askotan Karibeko musika zabaltzen. Kontzertuen berezitasuna, berriz, honakoa da: lortutako mozkinak hezkuntza eta osasun programak finantzatzeko dira bere osotasunean. Honenbestez, Kubako La Habana probintziak dituen beharrei elkartasunez erantzutea da ekimenaren helburua.

Andoain, Zumaia eta Bil-

bon ospatu diren lehen kontzertuek oso harrera ona izan dute, eta gaur gauean Trintxerpen izango da Visión taldea. Igandean, berriz, Donostiako Gros auzoan joko dute, gaueko 22:00etan, Zuhazti plazan. Hurrengo kontzertuak Errenterian (uztailak 23), Mendaron (uztailak 24), eta Loiolan (uztailak 31) izango dira.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

tarteko gazteak. b) 19-35 urteko edozein. Argazkiak lema batez aurkeztu behar dira, urriaren 8a baino lehen. Aurkezten diren argazkiekin erakusketa egingo da urriaren 15etik 30era.

AZKOITIA

► **Azkoitiaren 675. urteurrenko margo lehiaketa.** Teknika, estilo eta gaiari dagokionez, ez dago inongo mugarik. Lanak entregatzeko epea, irailaren 1etik 11ra. Helbidea: Azkoitiko Udala/ Herriko enparantza z/g / 20720 Azkoitia (Gipuzkoa).

BILBO

► **Emakumeak kontari VI. Narrazio Lehiaketa.** Nahi duten 18 urtetik gorako emakume guztiek parte har dezakete. Narrazioak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago eta lanak aurkezteko Udaletxeko Erregistrora jo.

DEBA

► **XVII. Tene Mujika Narrazio Laburren Literatur saria.** Lanaren hiru ale Debako Udaletxera bidaliko dira azaroaren 26a baino lehen. Gaiak libreak izango dira. Argibide gehiago Udaletxean.

DONOSTIA

► **Euskal jaietako argazki lehiaketa.** Donostiako Kultura eta Turismo Ekintzetxeak antolatuta. Kartelak 62x88 zentimetro-tako formatoa izan behar du. Honakoa idatzi beharko da kartelan: Euskal Jaiak 99 / Irailak 4-12 septiembre. Lanak uztailaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Kultura eta Turismo Ekintzetxean.

HONDARRIBIA

► **Jai nagusietako argazki lehiaketa.** Kolorezko argazkiak eta 20x25 zentrimetotakoak behar dute. Lanak (gehienez lau) Zuloaga etxera eraman beharko dira uztailaren 12tik 14ra bitartean. 50 argazkirik onenak Zuloaga Etxean erakutsiko dira, irailaren 1etik 5a bitartean. Hondarribiko Udaleko Kultura Sailak antolatutako lehiaketa da.

► **Barazki eta fruitu lehiaketa.** Udalak antolatu du eta abuztuaren 3a baino lehen eman behar da apart hartzeko izena. Lehiaketa abuztuaren 8an izango da. Informazio gehiago, 943 64 41 12 telefonoan.

IRUN

► **Txingudi 99 eguna iragartzeko kartel lehiaketa.** Lanak uztailaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira honako hiru helbideetako batetan: Hendaia: Hizkuntza Laboratorioan (Portu Karrika, 20); Hondarribia: Udaletxean (Kale Nagusia, 20); Irun: Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Arloan (Urdanibia plaza, 6). Argibide gehiago Irungo Udaletxean.

IRUÑEA

► **Umeentzako antzerki testuen VIII. Lehiaketa.** Lanak Nafarroako Antzerki Eskolara bidali behar dira, abuztuaren 1a baino lehen (San Agustín kalea, 5/31001 / Iruñea. Argibide gehiago 948-229239 eta 948-210360 telefonoetan.

LEKEITIO

► **XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bilerak.** Edozein zinegile edota bideogilek har dezake parte. Pelikulak 8 eta Super 8 formatoan egin behar dira. Bideoak VHS formatoan aurkeztu behar dira. Lanak urriaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago, 94 684 12 21 telefonotan.

SORALUZE

► **Santa Ana XII. Argazki Lehiaketa.** Nahi duten zale guztiek parte har dezakete. Gaia librea da, eta zuri-beltzean nahiz koloretan izan daiteke. Argazkiak Soralezko Udaletxera bidali behar dira (Santa Ana kalea, 1 / 20.590 Soraluze / Gipuzkoa), irailaren 25a baino lehen.

ZARAUTZ

► **Bertsolari Gazteen XXIII. txapelketa, Lizardi saria.** 1976-1980 bitartean jaiotako bertsolari gazteek har dezakete parte. Izena Zarauzko Turismo Bulegoan eman beharko da, abuztuaren 6a baino lehen. Argibide gehiago 943-830990. Txapelketa irailaren 3an izango da, Zinema pilotalekuan, 22:00etan.

► **Bertsopaper lehiaketa, XV. Basarri saria.** Bertsopaper bakoitzak gutxienez 8 bertso izan beharko ditu. Lanak uztailaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira Zarauzko Udaleko Euskara zerbitzura.

ZUMAIA

► **Logotipo Lehiaketa.** Merkatal Elkartek antolatuta. Lanak gaurko aurkeztu behar dira Forondan. Argibide gehiago Merkatarik Elkartean.

► **V. Baleike komiki-lehiaketa.** Pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira. Marrazkiak txuri-beltzean, uztailaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira honako helbidera: Foronda kultur etxea / 20.750 Zumaia. Argibide gehiago 943-861056 telefonoan.

BESTELAKOAK

ALEGIA

► **Siesta popularra.** Bulebarrean, 16:00etan. Lokartzeko musika piska bat jarriko da. Alegiko festa alternatiboak.

BILBO

► **Chiapasekiko elkartasun festa.** Sarean (Corazón de María, 4) 20:00etatik aurrera.

MUSIKA

ALEGIA

► **Txintxarri abesbatza.** Elizan, 19:45etan.

► **Joselouli, Txalaparta party.** Bulebarrean, 23:00etatik aurrera.

BARAKALDO

► **Margen tóxica.** Mellid tabernan, 20:00etan.

BILBO

► **Chicago.** El Gran Musical, Arriaga Antzokian, 20:00etan.

► **Moondance.** Kafe Antzokian, 23:00etan.

DONOSTIA

► **Azken garraia, Kolore biziak, Xuia Reggae Band.** Zuhazti zabalgunean, 21:00etan. Groseko jaiak.

GASTEIZ

► **Badi Assad.** Antzoki Zaharrean, 18:30etan.

SANTURTZI

► **Duo Dinámico.** Paseoan.

SORALUZE

► **Morau.** Gaztelupen, 22:00etan.

ANTZERKIA

DONOSTIA

► **Antzerki Feria.** 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara Teatro de automatás Alderdi Ederren; 16:00etan Lourvier's Lugaritz kultur etxean; 18:00etan Vaiven Egiako kultur etxean; 19:30etan Han-kagorri Grosen; 20:00etan Atril Produccionesek *La Celestina* eskainiko dute Victoria Eugenia; 20:00etan eta 22:00etan Flic Flac Bulebarrean; 23:00etan Txalo Producciones Antzoki Zaharrean; 00:30etan Soniquete Okendo plazan.

LEKEITIO

► **Los hermanos químicos.** Latorrili antzerki taldea, Lameran, 20:30etan.

SANTURTZI

► **Gila.** Serantes kultur etxean, 21:00etan.

ZINEMA-BIDEOA

ARRASATE

► **Torrente, el brazo tonto de la ley.** Aire zabaleko zinea, Monterron parkean, 21:30etan.

BERGARA

► **40 ezetz, Securitas Angelorum, Sarabe.** Novedades zine aretoan laburmetraiak, 22:30etan.

HITZALDIA

AZKOITIA

► **Chiapasi buruzko hitzaldia.** Mataderoan, 20:30etan.

IKASTAROAK

BEASAIN

► **Sendabelarren ikastaroa.** Ez-

kiaga auzo etxean izango da irailaren 14tik aurrera astearte eta ostegunetan (19:00etatik 21:00etara). Guztira 16 ordu izango dira eta matrikula 5.000 pezetatakoa izango da. Izen ematea Udaleko Kultura Sailean egin behar da irailaren 1a baino lehen.

BERGARA

► **Islada bideo-tailerra.** Irailaren 20tik azaroaren 4a arte izango da ikastaroa: 17:00etatik 20:00etara astelehen, astearte eta ostegunetan. Matrikula: 16.000 pezeta (langabetuak 8.000). Argibide gehiago 943-779158 telefonoan.


LEIOA

► **Alboka, trikitixa eta txalaparta ikastaroak.** Astebetekoak izango dira (10 ordutakoak). Informazio gehiago Kaos kultur gunean, 944-316841 telefonotan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Gazteak eta 2000. urtea argazki lehiaketa.** Bi kategoria: a) Deba-Gariko 14-18 urte bi-



XOUSE SIMAL

Anjel Lertxundik eta Bernardo Atxagak hitzaldia eskainiko dute gaur Donostian, *Un final para Nora* liburuaren aurkezpena dela eta. Udal liburutegian (Konstituzio plaza) izango da hitzaldia 20:15etan.